

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresak bi ekintza nagusi ditu. Alde batetik, bezeroak gure telefono zenbakira deituko du, eta guk ziurtatu beharko dugu ahalik eta azkarren iritsiko zaiola gure gidaria, bezeroak eskatutako lekura. Bestetik, telefono zenbakia ezin da saturatua egon, horretarako mugikor erabilgarri egongo dira, bezeroak arazorik eduki ez dezan enpresarekin kontaktatzeko garaian. Bi horiek litzateke enpresak gure kabuz ongi funtzionatuko duten ziurtatu ditzakegun bi ekintzak. Euria egingo balu, istripu bat gertatuko balitz edo gasolina gabe geratuko balitz motorra, guk ezin izango genuke hasieratik arazo hura konponduta eduki, beraz arau sinple batzuk ipiniko genituzke, eta larrialdiaren larritasun-mailaren arabera erabaki bat edo beste hartuko genuke.